



LIBURUA

Lehergailuak mundu erabat administratuari



PERU IPARRAGIRRE

SORTALDEKOAK HEDOI ETXARTE

SUSA, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Nola egin ihes ospitaleek batzuen eta besteen heriotzak administratzen dituzten moduetatik, eta egonkortasunak maitasuna administratzen duen moduetatik. Nola, elizak eta eskuinak administratutako landa eta kaleetatik; eta norbanakoaren administrazio enpresarialetik. Nola, poliziarentzat eta poliziak administratutako kale pribatizatuetatik, eta aurrezki kutxetan eta eskoletan bortxaz administratzen gaituzten moduetatik. Finean, nola egin ihes mundu erabat administratutik eta haren indarkeriatik.

Beste itaun batzuk ere bai, ziur, baina galdera horixe egitera behartu zaitzake *Sortaldekoak* poema liburuak, Hedoi Etxartek hirugarrenez Susarekin argi-

taratu duenak. Bada, lehenengo poema bera jarriko da, jada, erantzunaren bila. Horretarako, oroitzapenen mailetan sartu eta ihesean jarriko zaitu liburuak.

Poema bildumak hortaz, behartu zaitzake galdetzeraz, eta baita harekin sortu diren beste objektu kulturalak ere. *Zerua eta sua* eta *Usozaleak* ikus-entzuzkoek elkarrizketa dute liburuarekin –paperean eta *online* eskuragarri dagoenarekin–. Testuaren izaera diskurtsiboa gainditzeko lana egiten dute bideoetan soinuek eta irudiek, eta oroitzapenen alderdi ez narratiboari egiten diote lekua. Narrazio baten logika lineala gainditzeko duen erretorika eta isiltasunek hitz egiten duten poetika da oroitzapenei egotzen zaiena orrietan eta klipetan zehar.

Horrenbestez, poemetako oroitzapenak irakurri daitezke mundu erabat administratuaren arauari gainezka egin bezala. Kolektiboa da norbanakoa, kaosa da ordena, larrua jotzeko dira bankuak eta hilerriak, greba mugagabeak dira festak, merkantziek ez diote erantzuten truke-balioari, eta desirak hartzen ditu gorputzak. Guztiaren erdigunean dago Merced karrika: isilduen sorlekua eta zapalduen gurutzalekua.

Poema liburuko oroitzapenek beraz, egin lezakete lehergailu lana. Agian, posible da, balantza galarazi diezaioketela mundu erabat administratu honen oinarrien logikei. Lehergailuak badira, egingo ahal dute eztanda. ●